


# *ttipi-ttapa*

1992.eko Uztailak 30

91. zenbakia

dohain banatzen da

## PARADISURIK EZ







**Leitzako Udalak pesta onak opa dizkizue  
Leitzar guziei**





# non - zer

- 
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/45 HERRIZ HERRI**  
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizara-na, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...  
 Bera eta Leitzako bestetako koadernilloa
- 
- 46 ELKARRIZKETA:** Hamid: *'Joxemari merke ta ona'*ren kon-tura, hameka bazilada aguantatu beharra izaten dugu.  
 Joxemanuel Irigoien
- 
- 48 KIROLAK:** "Miguel Indurain Zikloturista Martxa antolatu du Club Ciclista Beratarrak".
- 
- 50 MERKATU TTIKIA**
- 

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
 Tirada: 5.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
 31780 BERA  
 Tfnoa.: 63 11 88  
 Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.



**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe .....450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza .....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun .....453039

Gartzain .....580451

Oronotz-Mugaire .....592024

Ituren .....450183

Sunbilla .....450283

Goizueta .....514067

Igantzi .....637755

Arantza .....634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun .....630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea .....614600

Nafarroako ospitalea .....102100

SSko urgentzi zerbitzua .....246750

Virgen del Camino

erresidentzia .....109400

Gurutze Gorria.....226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz .....450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404

Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire .....592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra .....630279

Baztanesa .....580129

Leitzarar .....515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo .....580730

Lesaka .....637154

Bera .....630261

**ABERIAK:**

Iberduero .....450335/450336

**W Botikak**

► **Abuztuaren 1-2an**, Bera, Narbarte eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Abuztuaren 8-9an**, Arantza, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

**W Kontzertuak****► BERA**

TAPIA

ETA LETURIA

Abuztuaren 1ean,  
gaueko 10,30etan, Al-  
tzaiteko Plazan.

**W Deialdiak**

► **LESAKA**, Abuz-  
tuaren 7an, Euskara  
Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, Abuztua-  
ren 7an, Euskara Ba-  
tzordearen bilera.

► **BERA**, Abuztuaren  
11an, Euskara Batzor-  
dearen bilera.

► **ETXALAR**, Abuz-  
tuaren 12an, Euskara  
Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, Abuz-  
tuaren 13an, Euskara  
Batzordearen bilera.

**W Bestak****► BERA**

Abuztuaren 1etik 6ra  
*San Estebanak*. Xeheta-  
sunak, erdikaldean.

**► BEINTZA-LABAIEN**

Uztailaren 31tik Abuz-  
tuaren 4ra *Herriko Bes-  
tak*. Ikus xehetasunak  
15. orrialdean.

**► LEITZA**

Abuztuaren 9tik 15era  
*Santiburtzioak*. Xeheta-  
sunak, erdikaldean.

**► SUNBILLA**

Abuztuaren 10etik  
Abuztuaren 14ra *Santi-  
burtzioak*. Ikus xeheta-  
sunak 14. orrialdean.

**W Bota bertsoa****Bittor ELIZAGOIEN****Gaia:** Baztandarren Biltzarra**Neurria:** Hamarreko Haundia

Gizonezkoak txapela eta  
emakumeek mandarra  
urtean behingoz berpizten dugu  
arbasoen jantzi zaharra  
hainbeste orga, hainbat dantzari  
zer ikusteko edarra  
baztandarrentzat besta onena  
da Baztandarren Biltzarra  
hamabost herri batera biltzen  
gaituen besta bakarra.

Baztandar denei bertsoz nahi diet  
orai mezu hau bialdu  
besta eder hau gora dijoa  
ez da batere apaldu  
bainan halare zabarkeriaz  
kontzientzirik ez saldu  
bertze urtean orga banakin  
herri guziak azaldu  
gure laguntza faltan ez dedin  
besta hau inoiz ere galdu.



# AGENDA

## Erakusketa

### ARTISAU LANAK

#### ► ELIZONDO

Uztailaren 4tik abuztuaren 3a bitarte, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean Baztango Artisauen erakusketa goiz eta arratsalde.

## Bertsoak

#### ► BEINTZA-LABAIEN

Jon LOPATEGI eta Manolo AROZENA

Abuztuaren 4ean, Beintzako Plazan 12,30etan.

#### ► BERA

LIZASO eta MAÑUKORTA

Abuztuaren 3an, Berako Plazan eguerdian.

#### ► SUNBILLA

BERTSO SAIOA

Abuztuaren 14ean, Sunbillako frontoian eguerdian.

## Gastronomia

### BAKAILOAREN 'LAMINA'K ONTTO ETA PIKILLO SALTSAN

#### Osagaiak:

(Lau lagunendako)

600 gr. bakailu, 300 gr. ontto eta piper lata erdi bat.

Bereziko dugu bakailua laminean, onttoak erdi egin-



Xabier Alzuri-k emana  
MIGUEL Jatetxea - IBARDIN

da edukiko ditugu. Joango gara sartzen lamina bat

bakailua eta bestea onttona, denetara 8 lamina egin arte.

Sartuko dugu labean 5 minutu, 180 gradutara.

Piperrak baratxuri eta perrexilarekin eginda dauz-kagunean turmisan pasatuko ditugu.

Aurkezpenerako, plater baten erdian bakailoa jarri eta saltsa bere inguruan.

## Baserriko feria

#### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 5.700 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 1 90 pzta/kilo **Zerramak**: 95-115 pzta./kilo bizirik.

#### ► BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal Extra.....510  
1.koa.....480  
2.koa.....450

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal Extra.....520  
1.koa.....480  
2.koa.....450  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkat idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

#### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 360 Pzta /Kg. Kanal.


#### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak**: urruxak 12.000 eta idixkoak 20.000 Pzta.

**Mestizoak**: urruxak 25.000 eta idixkoak 32.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro  
mota  
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESA

LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESA

❖ Zure ingurua klase guzitako in-sektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-z garbitu nahi baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55

- BERA



Europako lehena  
ostalaritzarako  
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA

BERA  
DESINFECCIONES



## 11 galdera ilabur

## Musika



**Martinika Yanci**  
Akordiolaria


- **Bertsolaritza ala musika?** Musika.
- **Akordeioa ala pianoa?** Akordeioa alaiagoa da baina pianoa politagoa da.
- **Autoestopa ala autobusa?** Autoestopa.
- **Lesaka ala Donostia?** Donostia, baina Lesaka ere maite dut.
- **Futbola ala txirrindularitza?** Futbola, noski.
- **Realan extranjerok ala kantera?** Kanterakoak.
- **Zure inguruan, euskara gehiagora ala gutxiagora?** Gehiagora.
- **Lehengo gaztedia ala oraingoa?** Lehengo gaztedia, jatorragoak ginen.
- **Ezkundu ala ez ezkundu?** Ezkundu baina maitasun haundiarekin.
- **Nafarroa, Euskadi ala Euskalerrria?** Euskadi.
- **Gazte kontserbatzeko, a tope ala lasai bizi behar da?** Lasai eta osasuntsu bizi behar da.

### ► Peio Serbielle

Donibane Garazi ondoko Donazaharren bizi omen da moldatutako etxe zahar batean Peio Serbielle.

Hogeitamar urte inguru dituen euskaldun berri hau nahiko ezaguna bihurtzen ari da Pariseko musika folklore berritzaile edo progresisten artean. Bizpahiru agerraldi egin ditu telebista frantzesean eta Uztailaren 14ean Pariseko Place de la Republique, makrokontzertu batean, Negresses Vertes, Ismael Lo, Chen Kader eta Kassavekin.

Manex Pagolaren musika eta



letrek bultzaerazi omen zioten euskara ikastera eta euskaraz kantatzera. Piano ikasketak segitzeko dirurik ez eta kitarrari ekin zion.

Musika berezia egiten du Peiok, erdi sinfoniko erdi liriko,

euskal melopeaz lagundua, erritmo flamenkoak, kordiona, kitar elektrikoak, sintetizadorea eta pianoa akustikoaren laguntzaz. Musika intimista dela ere diote eta letra tradizionala. Euskalerrriko pu-

ristak ez omen daude ados. Euskal musika fanatizmorik gabe zabaldu behar dela munduan zehar eta Euskal Herriatik atera gabe bertze musika adar landuko duela ere dio.

MARIANO

## ZIZKA OSTATUA

**Martxa eta mozkor saltsa**  
Altzate 28 - BERA



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
**Eguneroko menua eta karta**  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA  
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA  
KULTUR ETXEETAKO  
LIBURUTEGIAK OSATZEKO  
BEHAR DIREN BILDUMAK

**AMETS LIBURUAK**


Tf. 63 12 67 - BERA



## EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92  
**BERA**





**Zozaia**ko auzoak omenaldia eskeini zio Esteban Oskoz Almandotarrari San Juan egunean. 17 urte zituela etorri zen lehenengo aldiz 'Perotx' bere akordeoiarekin eta 50 urtez alaitu ditu auzoko bestak. San Juan egunean, meza, gosari txikia Iturri Ondo Elkartean eta bazkari goxo batekin omenaldia egin zitzaion



**Baztandarren Biltzarren** edizio berria pasa berria dugu eta egitaraua ia urterokoa izan da aurten ere. Karrozetan gai tradizionalak alde batetik eta erreibindikatiboak bertetik (Oronozkoa 'Mugarri Zubia', Zigakoa, preso dauden Baztandarrak gogoratzu.

## Leitzako zine sasoia arrakastatsua izan da

Azaro bukaeratik Maiatza bitarte  
9.868 sarrera saldu dira 84 zine saioetan



Ekonomikoki 87.145 pezetatiko defizita izan badu ere, Leitzako zinemaldiak jasotako erantzuna "oso positibotzat" baloratu dute Aurrera elkarteak antolatzaileek.

Guzira ia 10.000 sarrera saldu dira (6.313 larrietan eta 3.555 hamalau urte artekoetan).

58 filma ikusi ahal izan dira guzira, 84 saiotan zehar. Honek, saio bakoitzean 117 pertsonako

media zegoela esan nahi du, kopuru hau 351ra igo-tzen zelarik asteburuetan. Maiatzean, eguraldi onarengatik jende gutxixeago etorri da.

Halere gustora daude Leitzan, inbertsioak egin baitira, betirako geldituko direnak. Besteak beste kartelera, bobinak, eta-bar...

Aipagarria baita ere, musu truk aritu diren 16 lagunen lana.

### INFORMAZIOA:

- ✍ Nominak
- ✍ Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✍ Enpresa berrien sortzea
- ✍ Diru-laguntzak
- ✍ Errenta Deklarazioak
- ✍ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.





**B** RADIO  
BIDASOA

\* Zure bideo erreportai-ekin, pozik zaude?

\* Atera nahi diozu etekin haundiagorik zure kamarari?

**Radio Bidasoak ikastaro batzuk egiteko posibilitatea eskeintzen dizu, zure erreportaiak profesionalak bezala egin ahal izateko.**

Orduaz hitzegiz dezakegu, oinarritzko maila:

**Grabaketa eta montaia**

Kantonberri 1

**BERA ☎ 630377**



## MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - 63 02  
40 ☎ - **BERA**



**OKANE**

*Besta  
zoriontsuak!!*

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt, urdai-azpiko eta bertzelakoetan... sekulako aukera prezio eta kalitatean Zatoz eta proba ezazu!!

## Beran, Harategi-Urdaitegia

Kanttonberri 4, Tfnoa: (948) 63 00 18 - BERA



## Kirol zita interesgarriak abuzturako

‘Miguel Indurain’ ibilaldi zikloturista eta Nafarroako Igeriketa Txapelketa

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Udako giroa da, dudarik gabe, Beran nagusitu zaiguna. Izan ere, hilabetea Herriko Bestekin has-tea ez da ez hasteko modu txarra. Eta besten arrimuan, jakina, klase guzitakoak kirolak. Bestetako programaren barnean Herri Kirolak eta urteroko pilota partiduak dira zitarik aipagarrienak. Lehenengoari dagokionez, abuztuaren 2an, Arantza, Bera eta Lesakako taldeen artean Proba Kombinatua. Pilota partiduetan, berriz, abuztuaren 4ean arratsaldeko 6etan, Alustiza eta Arretxe, Bergara II.a eta Errandonearen kontra.



Nazioarteko Ibilaldi Zikloturistak bi zirkuito izanen ditu: 183km eta 110 km.koa bakoitza

Abuztuaren 16an, Club Ciclista Beratarrak antolatutako ‘Miguel Indurain’ ibilaldi zikloturista. (Xehetasunak kirol orrialdeetan ikus ditzakezue).

Abuztuaren 29 eta 30ean, Berako Igerilekuetan, Nafarroako Eskolarteko V. Kirol Jokoen barnean, Igeriketa Txapelketaren finalak jokatuko dira.

### W ttipi-flash

□ **Foruen Plaza** inguruko ‘nostalgikoek’, Bestetan, Ezkonduen Eguna orain dela urte batzuk leku horretan egiten zen modura berreskuratu nahi dute. Horretarako programa ere prestatua dute: meza, txikiteoa ‘lehenengo modura’ eta eguna behar bezala bukatzeko afaria Ansoñean dantzaldia eta guzi.

□ **Ricardo Baroja** Eskolan ikasleak ‘Musikan lehen pausoak’ emateko ikastaroarendako Diputazioetik hartu beharreko dirulaguntzak murriztuak daudela eta, Udalak lagunduko du bitartekari lanetan.

\*\*\* SAN ESTEBAN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU \*\*\*

### ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

### GRUPO ZURICH

**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

### Errekalde ostatua

Bestak ongi pasa

Tfnoa: 630529

**BERA**



### BENTA - ZAHAR

*Amuarrainetan espezializatuak  
bertan hazitakoak, gainera*

Besta zoriontsuak pasa

Intzola aldea

Tfnoa: 63 09 09 - BERA



LESAKA

# Bortz egunez huelga burutu dute Laminaciones-en

Erantzuna ia osoa izan zen Zalain. Legasa eta Arratzubiko lantegietan

AITOR AROZENA

Uztailaren 17, 18, 24, 29 eta 30ean huelga berri bat burutu dute Laminaciones-eko hiru fabriketako langileek, ELA, LAB, CCOO, ESK eta UGT sindikatoen deialdiari jarraituz. Bi lehenbiziko egunetan huelga erabatekoa ez bazen izan ere, hurrengo egunetan erantzuna ia osoa jaso zuen.


Langileek Siderurgi Planaren negoziazioan aintzina pausurik ez dela egin salatu nahi zuten ekintza honekin eta plan-gintza berri baten alde agertu dira. Eraberean, bertze mobilizazioak ere egin dituzte, Gasteiz eta Madrileko gobernuen aintzinean beraien egoera salatuz, azkeneko bi huelga egunetan. Eskualdeko alkateekin biltzeko asmoa ere agertu dute Enpresa Komiteko partaideek.



Berriz ere, mobilizazioen bidea hartu behar izan dute Laminaciones-eko langileek

## Asanblada Orokorra

Aipagarria da, hilaren 23an Legasa, Zalain eta Lesakako langileak Asanblada Orokorrean bildu zirela Enpresa Komiteak deituta. Azken bortz urtetan ez zen horrelakorik gertatu. Bertzalde, Comision de Cuadros sindikatoa desagertu egin da erakunde bezala.



Jexus Mari Almandoz 17 urtetako pilotari lesakarrak lortu du Espainiako eskuz banakako txapelketa jubenil mailan. Etorkizun ona ikusten zaio gazte honi pilota munduan

## W ttipi-flash

□ 91.410 pezeta jaso ditu Beti Gazte elkarteak «IV. Ezagutu Dezagun Lesaka» antolatzeagatik.

□ Nafarroak askatasuna galdu zuen garaietaz eta gaur egungo egoeraz aritu zen hilaren 17an Patxi Zabaleta Matxinbeltzean.

□ San Fermin Jubilatu elkarteak asanblada burutu zuen hilaren 24ean; bertan, egoitza berria eta egoera ekonomikoa izan ziren jorratutako gairik nagusienak.

□ Beti Gazte futbol taldeko jubenilak eta haundiak aurrendenboraldiari ekin diote dagoeneko. Haundiak erregionaleko lehen mailan arituko dira eta Luis Enrique Losada irundarra da entrenatzaile berria. Jubeniletan, Patxi Rodriguez lesakarra izanen da entrenatzailea.

Berriki arte Bortzerrietako baserrietan barrena edariak banatzen ibili naiz, bainan orain ezin dut negozioa atenditzen segitu.

Horregatik, banatze lanetan erabilitako NISSAN Furgioa, NA-AC matrikuladuna, saldu nahi nuke. Nahi izanez gero, klienteen berri ere emanen nuke.

Interesatuak deitu:  
63 79 83 edo 63 72 97 tfnora.

**XATURETXEA  
FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

**IRUBIDE  
OSTATUA  
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**KOSKILLA OSTATUA**

Zarandia 4 - LESAKA

**ARRANO**



**OSTATUA**

Legarra - LESAKA



## Oihanak gehiago estimatu eta zaintzeko bilerak

Aldiberean, Udalak ere elkartu egingen dira arbolak saltzeko

PELLO APEZETXEA

Arbola ugaritu eta hobetu nahian bilerak eta elkarteak sortzen ari dira han eta hemen.

Mendietako zeladorea jendea animatzen ari da, jendea arbolaz zaletu eta ikas dezan. Berriki Landes-etan egindako bileran egona dugu Urrittiko Juan Bautixa, goizuetar batzuk lagun zituela.

Gipuzkoan aspaldixkotik antolatua dagoen arboladi jaberaren elkarteak, orain Nafarroan gauzatzeko dabilta.

### Udalak elkartuko

Bortzirriak eta Malerre-



Azkenaldiotan etxe berriak jasotzen ari dira han hemenka bainan baita zaharrak bota eta berritzen ere. Hona hemen azken hauetako bat.

kako Udalek arbola salmenta batera egingen ote duten elkarsolasketatzen ari dira. Horrela eginez gero, salneurri hobeak eskuratuz gain, Gobernuaren metroko 500 pezetatako laguntza jasoko lukete.

□ **Beolaldeko** industrialde ttikia behin betiko onetsia gelditu da, inongo erreklamaziorik izan ez denez geroz.

□ **'Energia Hidroelctrica de Navarra S.A.'** moldaketa haundiak egiten ari

da zentraletan. Gaineko zentralako kanalak konpondu eta hobetzeko Barda erreka ondoko pista irekitzea pentsatzen du, zeina kamionentzat ere balio duena izanen den, Udalak erran bezala eginez gero.

□ **Bortzirietan** anbulantzi zerbitzua 24 orduz Gobernuak manten dezan eskatu zitzaion. Honek, Elizondo, Doneztebe eta Leitza izanen dela erantzun du zerbitzu hori, ez ordea Bortzirietan. Bortzirietan, ordea, ia 9.000 jende bizi dira, eurretatik aunitz baserritan. Beharrezko dirudi, horregatik, hemen ere anbulantzia izatea. Horrela idatzi dio Udalak Gobernuari berriz ere.



★ **KIXKUR** ★  
ILEAPAINDEGIA

✂ Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

**EKAITZA CAFE**

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko  
toki egokia

Tfa: 948 - 627547  
Plaza Berria 13 - LESAKA

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko  
orekarik hoberena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



**KATTU**

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta  
- Eguneako menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA



**ARRATZUBI**  
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79  
Bittiria karrika - LESAKA

**ALBARTETXEA**  
JATETXEA

Alicia eta Carmenek zuzendua  
Antoiu 26 - LESAKA



IGANTZI

## Bentako zubia berrituko da laister

Zortzi metrotako zabalera hartuko du eta 60 miloietakoa da aurrekontua

OSKAR TXOPERENA

Orain dela bizpahiru aste bisita egin zuen Igantziara Lopez Borderias kontseilariak, Sunbillako tunela ikusi bidenabar edo. Bisitaren arrazoia Udalari Bentako zubia berritzeko proiektuaren berri emtea zen.

Proiektuaren aurrekontua 60 miloi ingurukoa da eta oraingo zubia aprobe-txatuz zabaldua haundia-goia emanen zaio. Orain hiru metro t'erdi baldin badiu bideak, 6 metrotan geldituko da, bi kotxe edo kamioi aisa gurutzatzeko moduan, alde bakoitzean metro bana emanez gaine-



Kotxe eta kamioiak aisa gurutzatzeko moduan utziko da zubia

ra, jendea ibiltzeko. Beraz, 8 metro izanen ditu dene-tara. Egiten den bitartean, beherago tubo haundi bat-zuk bota eta harriz beterik izanen da pasoa alde bate-tik bertzerara, fondako apar-kalekura aterako delarik.

### Jendea patata ateratzen

Egin duen hilabete t'erdi txar horrengatik jendea patata erabat ateratzen hasia da. Fuldra arras jota dago eta etxe aunitzetan nahiko usteldu ere egin

omen da. Normalean be-randuago arte uzten bada ere oraingoan eguraldiak agindu du, gehienetan be-zala.

Ez du jendeak ilar urte izugarria espero ere.

### Etxe aunitz txukuntzen ari dira

Orain dela gutti Domi-neia moldatzen baldin ba-zuten orain bertze hiru etxe moldatzen ari dira: Erre-unta, Txillarneia eta Ixti-menea (Kapetxea eta Ara-menean tartean dagoena). Bi azken hauek, goitik be-hera botata gainera, hagitz egoera txarrean bait zeu-den. Etxe hauen berritzea-rekin ari da herria poliki poliki itxura polita hartzen.

## SAROBEn okindegia



**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

## KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bitiria, Tfnoa: 62 75 42

**LESAKA**

## KOXXKONTA



**Sagardotegia  
Erretegia**

Ezkontza,  
bataio, bileratarako  
leku egokia  
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

**IRAGARKI HAU  
5.200 ETXETAN  
SARTU DA**

ZUREA ERE SARTUKO DA  
PUBLIZITATERAKO  
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



## Amabirginetako bestak bertan ditugu

Dagoeneko egitaraua prest dago

JON LARRETXEKA

Hasiera hilaren 14ean, ortziralean emanen zaio, ohizko altxaferoarekin, larunbata izanen delarik seguruenik, gazteentzako egunik onena; izan ere Baldin Bada rock talde famatuaren jailadia izanen bait da.

Igandeko ekintzen artean aipagarriena herri kirolak izanen ditugu.

Astelehenean, berriz, ala delta, parapente eta globo hegaldiak ikusteko aukera Miaka mendian. Ikusteko ez ezik, nahi izanez gero, hegaldiak egiteko ere bai.

Asteartean eta bestak akautzeko herri bazkaria



Besta egin nahi duenak aurtengoan ere izanen du aukerarik

bertsolariekin, Sebastian Lizaso eta Murua.

Hauek ditugu aurtengo bestetakoekintza nagusiak, badago aukerarik besta egiteko, Bestetako Komisio burua den Bixentek

erran digunez: "adin eta mota guztietako ikuskizunak sartzen saiatu gara aurtengoan".

Hala ere, hurrengotiti-ttapan egitarau guztia zehatz mehatz argitaratuko

dugu, hau aurrerapen bat bertzerik ez da izan.

### 1992ko aurrekontuak onartu dira

80.834.932 pezetatara igotzen da aurtengo aurrekontua, hauetatik partida nagusia, 44 miliokoa frontoian gastatuko delarik.

Lekurik ez dugunez ez gara hemen xehetasunetan sartuko, baina bai erran nahi duen edonorentzat aurrekontu hauek Udaletxeko bulegoetan egonen direla datozen hamabortz egunetan, "exposición pública"n, edonork ikus ditzan.

### Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

**LAINO**  
HAUR JANTZIAK  
OINETAKOAK  
ETXERAKO ZAPATILAK  
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

IRAGARKI HAU 5.200 ETXETAN SARTU DA  
ZUREA ERE SARTUKO DA  
PUBLIZITATERAKO  
tti-ttapa ERABILIZ GERO

**ORDOKI**

**ALTZARIAK**

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik



SUNBILLA

# Aurten ere Santiburtziok besta ekarriko du herrira

Abuztuaren 10etik 14ra, egitarau zabala prestatu da aurtengoan

IXABEL eta JOSUNE

Honako hau izanen da aurtengoan, Sunbillako Herriko Etxea eta Ulibeltzak elkartearen artean antolatzen diren San Tiburtzio besten egitaraua:

## Astelehena 10:

**Arratsaldeko 8etan**, Altxaferoa Herriko Etxetik botako da eta ondoren txaranga herriko kaletan barna ibiliko da. «Baztan Zopak» Ulibeltzak elkartean eta Herriko Ostatuan.

**Gaueko 12etan** Dantzaldia «Jator» taldearekin. **Astearte 11 (San Tiburtzio Eguna)**

**Goizeko 10etan** Diana. **11etan** Meza Nagusia San Tiburtzioren ohorean.

**12etan** Aizkora apostua eta



Umore ona nagusituko da Sunbillan

Sunbillako dantzariak. **Arratsaldeko 6etan** pilota partiduak pilotazaleen artean.

**Arratsalde eta gauez** Dantzaldia «Jator» taldearekin.

**Asteazkena 12**  
**Peña eta haurren Eguna**

**10etan** Diana.

**11,30etan** Karts eta gomazko gazteluak.

**2etan** Peñetako bazkaria.

**4etan** Txaranga eta peñek elkarturik herriko kaleak alaituko dituzte.

**5etan** Karts eta gomazko gazteluak.

**6etan** Sunbillako Gomazko Paleta txapelketaren finalak.

## Osteguna 13

**10etan** Diana eta pilotalekuko zuhaiztian mus txapelketa.

**4,30etan** Plater Tiraketa.

**5etan** Jinkana haurrentzat.

## Ostirala 14

**10etan** Diana.

**12etan** Sunbillako haurren eskuzko pilota txapelketaren finalak. Ondoren eta leku berean, bertsolariak.

**2etan** Zikiro-jate, bertsolariak eta txaranga.

Egunero arratsaldean eta gauean dantzaldiak «Jator» taldearekin. Dantzaldi bukaeran txaranga Ulibeltzak elkartean izanen da.



**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

**HERRIKO ETXeko OSTATUA**  
**JATETXEA**

**Besta ederrak pasa**

Karrika Nagusia, Tfnoa: 45 01 54 – **SUNBILLA**

**IRIBARREN HARATEGIA**

Tfnoa: 45 06 94  
**SUNBILLA**

***BIBI Janaridenda***

**JANARI IZOZTUAK**

**Besta Onak pasa**

Karrika Nagusia, Tfnoa: 45 09 74 – **SUNBILLA**

**MARIBEL JANARIDENDA**

**Besta ederrak pasa**

Leku Eder, Tfnoa: 45 05 95 – **SUNBILLA**

**IRURIBIETA**

**OSTATU JATETXEA**

Iruri-Iruña Bidea, 61,5 Kma., Tfnoa: 450399 – **SUNBILLA**



## Aizkora apostua besta bezperetan

Gazte bat bi zaharren kontra desafioarekin hasi eta bertze 5 egunez luzatuko dira bestak


PATXI OTXANDORENA

Desafioa emana dago. Besta bezperetan, uztailearen 31 ortziralean, Jose Jacinto Etxekoloneak alde batetik eta Pedro Bertiz eta Urbano Albistur bikoteak bertetik, beraien indarrak neurtuko dituzte Labaingo Plazan. Gazte bat bi zaharren kontra. Egin beharreko lana, sei enbor ebakitzea. Giroa, honezkero, gori-gorian jartzen hasia da. Batzuk gaztearen alde, bertzeak zaharren alde. Nahi duzenak, zita ordua ortziralean 8,30etan, Labaingo Plazan.

### Bestetako Programa

Ortzirala 31:

8etan Altxaferoak;



Herri Kirolak ikusi ahal izanen dira Behintzan abuztuaren 4ean.

8,30etan kalejira txistulariekin eta Baztan Zopak Herriko Ostatuan. **Gauzez** dantzaldia MODESTOrekin Beintzan.

Larunbata 1:

10etan Argi Soinua; 7etan Aizkora Apostua Labai-

go Plazan: MINDEGIA-NAZABAL, LARRETXEA-JAUNARENaren kontra. Lana: 12 enbor kannaerdikoak. **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia GAUBELArekin Labainen.

**Igandea 2:**

10etan Argi Soinua; 12etan Meza Nagusia; **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia GAUBELArekin Beintzan.

**Astelehena 3:**

10etan Argi Soinua; 12etan Plater Haustea; 6etan Haurrendako Jokoa; **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia GAUBELArekin Labainen.

**Asteartea 4:**

10etan Argi Soinua; 12etan Herri Kirolak Beintzan; ondotik Jon LOPATEGI eta Manolo AROZENA Bertsolariak Beintzan. 2etan Zikiri Jatea Beintzan; **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia MODESTOrekin.

BEINTZAko OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA • LABAIEN

**m**  
FOTO  
MENA  
ELIZONDO

Ezkontzetako  
erreportaiak  
argazkiak eta  
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40  
ELIZONDO

Eta orain, zure  
koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ  
ERREBELATUAK**  
ditugu

12

Ostatua

Amezitia 12, Tfnoa: 450153. DONEZTEBE

IRAGARKI HAU 5.200 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITERAKO

ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

**ASKIN OSTATUA**

**Bokadillo eta Plater konbinatuak**

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

**TXOKO erretegia**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

*Mari Cruz*

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



DONEZTEBE

## Zenbait bide moldatzen ari dira

Eskolan zenbait moldaketa egingen dira abuztuan


TXEMA ALDABE

Bida dira hain zuzen ere moldatzen ari diren bideak. Bata Joxe arotxaren dendatik Donamariarako bidera doaia. Garai batean bide hau bertzerik ez omen zuten erabiltzen, jakina, orain dagoena egitekoa zelako. Bertze bidea berriz, Matteoren etxetik herriko ur depositora joateko hartzen den gurutzaraino. Bide hau jarraituz Mugitz baserria dago eta haraino konpontzeko eskaria egin baldin badago ere oraingoz Udalak ezeztza eman dio.

Bi bide hauek INEMen laguntzaz egiten ari dire.

### Depuradora geldirik

Aintzineko *ttipi-ttapan* lanak aintzinduak zeudela jakinarazten bagenuen ere oraingoz geldirik daude. Nonbait kontratista eta horren ardura duen enpresaren artean istiluak sortu



INEMen laguntzaz burutzen ari dira bideak moldatzeko obrak

KARMELE Argazkia

dira.

### Eskolan moldaketak

Hasiera batetako plangintza 30 miloi inguru kostako ziren lanak egin asmo bazituzten ere, kopuru horren % 10a onartu da eta 2'5 miloi inguru kostatuko diren lanak egingen dira abuztuan. Kantidade horretatik % 70a subentzionatu da eta gainerakoa Doneztebeko Udalak pa-

ratuko du.

Zurgin lanak egiteko hemengo 5 zurginei igorri zaie aurrekontua egin dezaten, baina bat bakarra izan da aurkeztu dena. Lanaz gainezka daudela dirudi.

Teilatuaren moldaketan ere sortu dira arazoak, bertan dagoen uralita eredurik orain ia ez omen da egiten. Dena den irtenbideren bat bilatuko da

### Idazkaria barnetegian

Jokin Duke Mendaur barnetegiak abuztuan antolatu duen bernetegia egingen du. Bere ordezkari Joxe Larraioz urroztarra arduratuko da Udaletxeko lanetaz.

### Zabor bilketa

Malerrekako zabor bilketa dela eta zenbait arazo sortu dira bilketaz arduratzen zen David Alzugarai guardia zibilak atxilotu ondoren. Egun batzuz bildu gabe egon ondoren, lehen egindako subastan bigarren gelditu zenak hartu zuen lan honen ardura baina honek lan ez atsegin eta ezintasunagatik utzi egin zion biltzeari. Azkenik Urrozko Jexus Mari Zozaiak hiru hilabeteko kontratua egin du. Epe hau akittu ondoren subastara aterako da berriz, nahi duenak hartu.

**BELARRA Kafetegia**

*Plater konbinatuak*

Amezitia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

**IBARROLA**

**HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA**

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

*Zintaren* Supermerkealdiak  
A R R O P A K  
San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE



**AMEZTIA  
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tf: 450028 - DONEZTEBE



Abuztuak 1, 2, 3, 4, 5 eta 6an

### Larunbata 1:

**Arratsaldeko 4etan** Plater Tiraketako San Esteban Sari Nagusia, Foso modalitatean, Berako Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatua.

**Arratsaldeko 8,30etan** Gure Txokoa Dantza Taldeak jaialdia eskainiko digu Eztegar pilotalekuan.

### Igandea 2:

**12etan** San Esteban 1992ko besten hasiera adieraziz, Herriko Etxetik altxaferua botako da eta ezkil jotzea. Tikiendako goxokiak eta helduentzako txanpaina izanen da. Ondoren, Erraldoiak eta Buruhaundiak karrikaz karrika ibiliko dira, LOS INCANSABLES txarangak lagundurik. **2etan** Bazkari Herrikoia Rikardo Baroja eskolako frontoian, AKELARREK antolatua. **5,30etan** Txirrindula laisterketa, Gure Txokoak antolatua. **6,30etan** Txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira. **7,30etan** Eztegar pilotalekuan eta Gure Txokoak antolatua, Herri Kirolak. Taldeak: Arantza, Bera eta Lesaka. Nafarroako txapelketarako baliagarria den froga, Lesakako trikitilariak alaitua.

**Gaueko 12etatik aintziner**a Dantzaldia Altxate Plazan, ANKER Taldearekin.



GOKIO

## ZALAINJATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira


Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

## Tximistindar

J. M. Andueza Iriarte

Instalazioak eta moldaketak

Askain 12 - 4. ezk. - Tfnoa: 63 08 54 - **BERA**



*Styl Design*

Ongi  
pasatu  
bestak

*bitxidenda • erlojudenda • sariak*

*Bera - (948) 630751*

## EKAITZA OSTATUA



Bestetako  
girorik  
ederrena

Altxate - BERA



**Astelehena 3:**

**Goizeko 9etan** Herriko txistulariek argisoinua joko dute. **10,30etan** Udalbatza, txistulariak, makildantzariak eta Berako Bandera eraman-  
 nez, Herriko Etxetik Eliza Nagusira abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako Koralak lagundurik emanen den Meza Nagusia entzutera. Meza ondotik, Gure Txokoa Dantzari taldeak Berako Makildantzak eta Bordon-dantza dantzatuko dute. Gero LIZASO eta MAÑUKORTA bertsolariek beraien saioa eskeiniko digute. Segidan, LOS INCANSABLES txaranga karrikaz karrika ibiliko da.

**5etan** Lesakako kordiolariak

GOIKO



# MATXIARENA

Ostatu - Jatetxea

**Besta  
onak  
pasa!**



Altzate 40 - Tfnoa: 63 00 33 - BERA

# Sorkunde Benta

Besta onak pasa itzazue

\*\*\*\*\*

IBARDINGO GAINA - BERA



# GARBUA TAILERRAK



OPEL



ZERBITZU OFIZIALA

- Erakusketa eta Salmenta
- Mekanika
- Txapa eta pintura

Irun-Iruñea Err. - Tfnoa: 63 08 49 - BERA





GOIKO

Berako karriketan barrena ibiliko dira, Berako Plazan bukatuz. **6etan** Gure Txokoa Dantzari Taldeak Berako Aurreskua dantzatuko du Berako Plazan. **7etatik 10etara** Dantzaldia Berako Plazan JATOR Taldearekin. **11,30etan** Kaxernatik su-artifizialak botako dira. **12etatik aintzina** dantzaldia Berako Plazan, JATOR taldearekin.

**Asteartea 4:**

**9etan** Trikitilari eta Gaiteroak Dornaku eta Zalain auzoetan. **9,30etan** Berako Txistulariek argi-soinua joko dute. **10,30etan** Plater Tiraketa, "Ehiza Ibilaldia" modalitatean Lizuniagako Tiro zelaian, Ehiza eta Arrantza Elkarteak

**ZUBIETA  
OSTATUA**

Ongi pasatu  
herriko bestak

Askain Karrika 21  
Tfnoa: 63 02 78  
BERA

**OIHANA  
JANTZIGINTZA**

Eztegara, Tfnoa: 630359 - BERA

Atorrak  
Arropa  
konfekzioa  
eta Puntuzko  
generoa

**ALDI - ERRANDONEA  
JANARIDENDA**

*Etxez Etxe bahatzen dugu*

Legia 27 - BERA - Tfnoa: 630680

**MUGIKA  
BENTA**

Alabastroak, Oroitgarriak,  
ardoak eta pattarrak

Ibardingo Gaina  
BERA



Besta  
ederrak pasa!

**Miguel Iatetxea**



- Arrain eta paellan espezializatua
- 11,30etatik 15,30etara zabalik egunero
- Ongi zaindutako Sukaldaritza
- Besta zoriontsuak opa dizkizuegu

IBARDINGO GAINA Tfnoa: 63 12 09 - BERA



## **PRIETO ESTANKOA**

Legia 1, Tfnoa: 630109 - **BERA**

## **M<sup>a</sup> JESUS - Liburudenda**

Besta on batzuk opa dizkizuegu

Altzate 9 - Tfnoa: 630134 - **BERA**

## **ARRAGO-BIDE**

Ostatua - Janaridenda - Oroitgarriak

**Besta onak pasa**

Ibardin gaina, Tfnoa: 63 07 06 - **BERA**

## **ROMANO Dekorazioak**

*Besta zoriontsuak opa dizkizue, etxeko  
lanetako zerbitzuak eskeiniz.*

*Enpapelatzea, Fatxadak, Gotelé Rustikoa, zoru  
rebestimientuak eta margoketa orokorrean.*

Legia 1, Tfnoa: 630 941 - **BERA**

## **FOTO GOIKO**

Altzate 26

Tfnoa eta Faxe: 63 05 15

**BERA**

- ☐ BODA ERREPORTAIK,  
ARGAZKIETAN ETA BIDEOAN
- ☐ Komunioetako oroigarriak
- ☐ Kolore eta zuri-beltzeko  
argazkien errebelatzea
- ☐ Argazkilaritza industrialia
- ☐ Karnet argazkiak koloretan momentuan
- ☐ Argazki eta bideo materiale salmenta
- ☐ Fotokopiak
- ☐ Fax zerbitzua bidaltzeko eta hartzeko

## **BEOLA ETXEA Jatetxea**

Janaridenda  
Oroitgarriak  
Taberna  
Autozerbitzua

Ibardingo Gaina - Tfnoak: 63 07 09, 63 13 40 - **BERA**





antolatua.

**Goizeko 11,30etatik 13,30etara eta arratsaldeko 4etatik 7,30etara** Pista Libre, Kars, Gaztelu Haizatuak eta zezen mekanikoa Altzateko Plazan.  
**12etan** Migattu adar borobilduak Berako Plazan gaiteroek alaituta. **5,30etan** Pilota partiduak Eztegar pilotalekuan, pilotari profesional onenen artean, trikitixak alaiturik. **8,30etan** Nafarroako Jotak Altzateko Plazan, **Los Pamplonicas** taldearekin. Bukatzerakoan, zezen-suzkoa, Gaiteroek alaituta. **12etatik aintzinera** Dantzaldia Altzateko Plazan, **MINXORIAK** Taldearekin.

**Asteazkena 5:**

**9etan** Trikitixa eta Gaiteroak Suspela eta Kaule auzoetan barrena ibiliko dira. **11,30etan** Berako Igerilekuan, Haur eta Gazteentzat VI. Igeriketa Txapelketa Gure Txokoak antolatua. **12etan** Migattu adar borobilduak, Berako Plazan, Gaiteroek alaiturik. **5,30etan** Erraldoi eta Buruhaundiak, **LOS INCAN-SABLES** txarangarekin batera, Berako plazatik Altzateko plazara joanen dira. **6etan** Altzateko plazan, **ARABIA KALEJIRA** haurrendako ikuskizuna **GOLOKA** taldeak emana. **7,30etan** Migattu adar borobilduak Berako Plazan, Gaiteroek alaiturik **Gaueko 12etatik aintzinera** dantzaldia Altzateko Plazan, **DRINDOTS** taldearekin.

GOIKO



# ● IGONE ●

**Papertegia - Liburudenda**

• **Fotokopiak eta Textu Liburuak**

Kanttonberri 4 - Tfnoa: 630626 - **BERA**



*Gozotegia - Ostaturia*

Eztegara 8 - Tfnoa: 63 02 54

**BERA**

# BENTA

# GORA

**BAR - RESTAURANT**

**IBARDINGO GAINA**

Tfnoa: 63 07 29

**BERA**



# EDURNE

**Haurrendako  
Moda**

Altzate 24

Tfnoa: 63 06 06


**BERA**



**Ortzeguna 6:**

**Goizeko 9etan** Trikitilari eta Gaiteroak Suspenditu eta Garaitarre auzoetan arituko dira. **10,15etan** Pilota partiduak Berako pilota eskolako ikasleen artean, Prebenjamin, Benjamin, Alebin, Infantil eta Jubenil mailetan, Gure Txokoak antolatua. **10,30etan** Txirrindulari laisterketa kadeteentzako, Club Ciclista Beratarrak antolatua. Ibilbidea: Bera, Hiru Karrilak, Bera, Zalain, Saihesbidea, Lesaka, Bera, Saihesbidea, Hiru Karrilak, Bera, Helmuga Eztegarra Pasealekuan. Guzira 68 kilometro. Segidan sari banaketa.

GOIKO



**ELIZALDE BENTA**

Ibardingoa Gaina - Tfnoa: 631024 - **BERA**

**CARE**

*Saneamenduak*

Mobleak eta bainurako tresnak  
 Iturgintza eta kalefakzioa

Kanttonberri 10 — BERA — Tfnoa: 63 11 07

**GURIA**

**DROGERIA - LURRINDENDA  
 OPARI ARTIKULOAK**

Altzate 37- Tfnoa: 63 03 88 - BERA

**ARTIEDA** Autoserbitzua

**Besta on batzuk pasa**

Kanttonberri 2, Tfnoa: 63 11 81 - BERA

**SUCESORES  
 ARTURO  
 IGLESIAS**

**Ehunak - Mertzeria**

*Besta onak pasa*

Altzate 14 - Tfnoa: 630136

**BERA**

**IGOA**

**HARATEGIA**

**Besta on  
 batzuk pasa!**

Altzate 36—Tfnoa: 63 03 08


**BERA**

**ARRI BENTA**

- ✕ Oroitgarriak
- ✕ Autoserbitzua
- ✕ Harategia

*Besta on batzuk pasa ezazue*

**Tfnoa: 630175 - IBARDIN**



GOIKO

**12,30etan** Erraldoi eta Buruhaundiak Altxate karrikatik Berako Plazaraino paseatuko dute, LOS INCANSABLES txarangaren laguntzaz. **4,30etan** 3 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoentzat jokoak Ricardo Baroja eskolaren frontoian. 3 eta 6 urte artekoentzat era guzietako jokoak. 7 eta 16 urte artekoentzat oka jokoak. Partaide guzientzat berendua eta freskagarriak egonen dira eta sariak maila bakoitzeko talde irabazleentzat. Ekitaldi hau Gure Txokoak antolatzen du, Ricardo Baroja eskola, Jesusen Bihotza

## MENDIMENDIAN BENTA

Besta on batzu opa dizkizue

Ibardin gaina, Tfnoa: 63 07 23 - BERA



**ZALAIN**  
 KARROZERIAK  
 TXAPA ETA PINTURA

Tfnoa: 63 01 88 - BERA



ESTETIKA • SOLARIUM

**Besta on batzuk pasa!**

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA



**ATALAYA**  
 COLL D'IBARDIN  
 NAVARRA (Espana)

Ibardin gaina - BERA

Ostatu  
 Jatetxea \_\_\_\_\_

**BETi - JAi**

\*\*\*

- ☛ Eguneroko menuak
- ☛ Kazuelak eta pintxoak

Askain 1, Tfnoa: 63 08 10 - BERA





GOIKO

eskola eta Labiaga ikastolako Guraso Elkarteekin batera. **7,30etan** Migattu adar borobilduak Berako plazan gaiteroek alaituta. Bukatzerakoan, pottokak egonen dira. **10,30etan** Zezen-suzkoa Foru Plazan, LOS INCANSABLES txarangak alaituta. **Gaueko 12etatik goizaldeko 2,30etara** Dantzaldia Altzateko Plazan GAUBELA taldearekin.



*Betak ongi  
para*

Legia 11 - Tfnoa: 63 06 64  
**BERA**

## BENTA - BERRI

Ostatua • Janaridenda

**LARRUGAREN ETXEA**

Ibardin, Tfnoa: 63 07 08 - **BERA**

## AGIRRE BENTA

OSTATUA  
 OROITGARRIAK

Ibardingo gaina  
**BERA**



## SENPER AUTO-ESKOLA

*Egitan gidatzen ikasi nahi baduzu, etorri guregana.  
 Klase teorikoak eta praktikoak: Goizeko 9etatik 1etara  
 eta arratsaldeko 4etatik 9etara.*

Eztegara Pasealekua 22 - **BERA**

Tfnoak: 630298 (Bera) eta 637206 (Lesaka)

## Oroz Autozerbitzua

Altzate 22, Tfnoa: 63 01 80 - **BERA**

## LIxOia OSTATUA

Itzea, Tfnoa: 63 01 84 - **BERA**

## EROSLE

AZKONA

EROSKI-REN FRANKIZIAREKIN

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
Frexkuena zugandik hurbilago

Altzate 15

Tfnoa: 63 01 59 - **BERA**

## Izarra Benta

Janaridenda • Oroitgarriak

Ibardingoa gaina, **BERA**


# HAIZGORI S.L.



- *Karrozeria (txapa eta pintura)*
- *Grua Zerbitzua 24 orduetan*
- *Aukerako ibilgailuak*

Ubela Parajea, N-121-A, 76. Km - Tfnoa: 63 13 11 - **BERA**





GOIKO

## **BOTXO ostatua**

Ongi pasatu  
herriko bestak

Tfnoa: 63 00 52 - Zalain auzoa, **BERA**



Bestak ongi  
pasatu!

Altzate 6 Tfnoa: 63 05 98

**BERA**

**KIROLAK ZELA**

**BOAN TAILERRA**

*Bestak ongi para*



**CITROEN**  
Banatzailea

KOTXE BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
Herriko Etxeko Plaza - **BERA**

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIAK  
BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5

Tfnoa: 630083 • **BERA**

## **AGENTZIA**



**NISSAN**

Tailer zerbitzua  
laister zabalduko  
dugu

• Bortzirietarako  
saltzaile ofiziala

*winterthur*  
seguros

*Era  
guzietako  
Aseguruak*

San Esteban 27, Tfnoa-Fax: 631044, Etxekoa: 634053 - **BERA**



**Besta onak pasa!!**

Eztegara Pasealekua 3, Tfnoa: 63 01 98

**BERA**

## BIDASOA TAILERRAK

PEUGEOT - TALBOT  
Agentzia Ofiziala

MEKANIKA - KOTXEEN ELEKTRIZITATEA

### Ongi pasatu bestak

Bidasoa, 99  
Tfnoa: 63 02 99

31.780 BERA  
(Nafarroa)

## Masaia - bizkortze ariketak

### Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehenetik ortziralera,  
15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

Asteazken arratsaldeak etxetara bisita  
egiteko egunak izanen dira

## BIOK BENTA

Ongi pasatu Sanestebanak

TFNOA: 630 707

Ibardingoa Gaina - BERA

## TXORI - LEPO BENTA

### AUTOZERBITZUA - OSTATUA



*Besta onak opa  
dizkizue Beratar  
eta bintari  
suziei*

## SEMPER ANAIK S.L.



RENAULT  
BANATZAILE OFIZIALA



Besta zoriontsuak opa dizkizue  
Tfnoa: 630 621 - BERA

## AZALEA

### Loradenda



*Besta zoriontsuak opa dizkizue  
eta lorategi eta baratzerako  
landare mota guziak  
eskeintzen dizkizue.  
Erramu apaingarriak,  
zentroak, koroak, ezkontz  
erramuak, kotxeen  
apainketa  
Etxez etxeko zerbitzua.*

Altzate 26, Tfnoa: 63 11 21 - BERA



**BANATZAILE OFIZIALA**



Ubela Parajea  
N-121-A - 76. Km.  
948631350  
BERA

# MAES

**MAESTROS CERVECEROS DE FLANDES**





## LEITZA

**Abuztuak 9, 10, 11, 12,  
 13, 14 eta 15ean**

**Igandea 9:**

**Umeen eguna**

**Goizeko 8etan** Diana Txistulariekin.

**9etan** Zaldi txikiak (poniak) plazan.

**10,30etan** Meza Nagusia "Korporazio" berria dantzari ttikiekin joanen delarik. "Korporazioa" Udaletxean bilduko da 10,15etan.

**11,30etan** Umeentzat jokoak.

**Arratsaldeko 4etan** txirrindulariak herrian zehar. Ondoren zaldi ttikiak plazan.

**5,30etan** Dantzari txikien saioa eta ondoren bonba japoniarrak.

**7etan** Herriko trikitilarien saio bikain bat.

**8etan** Kalejira ARTADI txarangarekin.

**8,30etan** Dantzaldia HARITZA taldearekin.

**12etan** berriz ere dantzaldia HARITZA taldearekin.

**Astelehena 10:**

**Pesta Bezpera**

**Eguerdiko 1,30etan** Jubilatuentzat Bazkaria.

**6,30etan** Ezkila jotzea eta etxafuego botatzea pestei hasiera emanez. Ondoren kalejirak txistulari eta ARTADI txarangarekin eta buruhaun-

### BIKOITZ TABERNA

**Pestak ongi pasatu**

Elbarren 16 ☎ 510072 - LEITZA

### OIALDE TABERNA

**Pintxoak, Kaxuelak, Bokadilloak**

Huarte Gotzaia, Tfnoa: 51 00 77 - LEITZA

### LANDA TABERNA

**Huarte Gotzaia - LEITZA**

### TXOKO TABERNA

**Jatexea eta pentsioa**

**Jai zoriontsuak pasa!!**

Huarte Gotzaia, Tfnoa: 51 00 77 - LEITZA

### BELARRA

**JANARIDENDA \* KOSMETIKOAK  
 BELARDIETETIKA**

Elbarren 35, Tfnoa: 510192 - LEITZA

### LEITZARRA TABERNA

**Ongi etorri kanpokoei**

**Ongi pasa bertakoei**

**Pesta zoriontsuak!!**



diak.

**12etan** Dantzaldia goizalde arte GAUBELA taldearekin.

**Goizeko 3etan** ligatzeko ingurutxo

**Asteartea 11:**

**Tiburtzio Donearen Eguna**

**Goizeko 7,30etan** Txstulari eta ARTADI txarangak jotako Dianak.

**9etan** Entzierroa eta zezenak plazan.

**10,30etan** Meza Nagusia Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.


**12etan** AURRERAKO ezpatadantzariak plazan.

**Ondoren** pilota partiduak.

**5,30etan** Zezenak plazan.

**6,30etan** KONPARSA eta ERRALDOIAK.

ANTTON



## LENITZ BODEGA

Manuel Lasarte z/g - Tfnoa: 510333 - LEITZA

## Mendizabal Taberna

*Pintxoak, bazkariak eta afariak*

*Besta zoriontuak opa dizkizue*

Elgoien 22 - ☎ 510128 - LEITZA

## ANA ARRAINDEGIA

*Eguneko arrainak eta izoztuak*

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren 34, Tfnoa: 61 06 81 - LEITZA

## BIOK JANTZIAK


GIZON, EMAKUME ETA HAURRENTZAKO ERROPAK

Elbarren 32 - LEITZA

## GAZTELU FONTANERIA

## KALEFAKZIOA

Elgoien 32  
 Tfnoa: 510086  
 LEITZA



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak



**8etan** Dantzaldia GAUBELA Taldearekin.

**12etan** Dantzaldia GAUBELA Taldearekin.

**Asteazkena 12:**

**Goizeko 7,30etan** Dianak, txistulari eta ARTADI txarangarekin.

**9,30etan** Entzierroa eta zezenak plazan.

**11,30etan** Herri Kirolak.

**5,30etan** Zezenak plazan.

**6,30etan** AURRERAko Dantzarien saioa plazan. Ondoren bonba japoniarrak.

**8etan** Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

**12etan** JOSELU ANAIK taldearen beste saio bat.

ANTTON



Poligono Industrial, 4

**LEITZA**

Tfnoa: 510311

Faxa: 510529

**SUKALDE eta  
 BAINU HALTZARIEN  
 FABRIKAZIOA**

**“KALITATEAREN EZAUGARRIA”**

**Jai Zoriontsuak Opa Dizkizuegu**



**Osteguna 13:**

**Goizeko 7,30etan** Txistulari eta ARTADI txarangarekin dianak.

**9,30etan** Entzierroa eta zezenak plazan.

**11etan** IDI PROBAK (karretera generalean).

**Arratsaldeko 5,30etan** Zezenak plazan.

**7etan** Plazan ZALDI DOMA.

**7,30etan** Pilota partiduak profesionalen artean AMAZABAL pilotalekuan.

**Arratsaldeko 8etan eta gaueko 12etan** Dantzaldia AKELARREtaldearekin.

ANTON



# PLAZA

**Autoeskola eta Seguruak**

Huarte Gotzaia 8 - Tfnoa: 51 03 38 - **LEITZA**

## ASTIZ LIBURUDENDA

**Pestak ongi igaro!;**

Elbarren - Leitza

## GAZTAÑAGA TABERNA

**BOKATAK eta PINTXOAK**

BESTA ONAK OPA DIZKIZUE  
 DENONTZAT ETA DENOKIN

Tfnoa: 610708

## TAXI SERBITZUA

**MIKEL ZABALETA (Gaztañaga Taberna)**

24 ORDU

Tfnoak: 610708 eta 908176967

## PITXIK Oparidenda

*Pesta ongi para!!!*

Elbarren 18 - **LEITZA**

## LEITZALDEKO EUSKALTEGIA



☎ 61 07 76

*Pestak ongi igaro  
 euskera erakusten, ikasten eta  
 mintzatzen*



**Ostirala 14:**

**Goizeko 7,30etan** Dianak txistulari eta txarangarekin. **9,30etan** Entzierroa eta zezenak plazan. **11etan** Bertsolariak. **12,30etan** Herriko gazte eta elkarteak prestatu-  
 rikoz kaldereteak plazan. **Arratsaldeko 5etan** Zezenak plazan. **6,30etan** Umeentzako Antzerki-Tailerra. **8etan** Dantzaldia GAUERO taldearekin. **Gaueko 12etan** Dantzaldia GAUERO taldearekin.

**Larunbata 15:**

**Ezkondutakoen Eguna**  
**Goizeko 7,30etan** Dianak txistulari eta ARTADI txarangarekin. **9,30etan** Entzierroa eta zezenak plazan. **11etan**

ANTTON

**ZUREZKO LANAK, S. L.**

*Zurgin lanak, Tarimatzeak,  
 lijatzeak eta barnizatzeak*

Amazabal 14 - 3. B

Tfnoa: 51 05 03

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

**ARAKINDEGIA Jatetxea**

Pesta zoriontsuak pasa itzazue!

Elbarren 64 - Tfnoa: 51 00 52 - LEITZA

**MAIMUR**  
**LIBURU ETA PAPERDENDA**  
 ELBARREN, 15 - 31880 LEITZA - TFNO Y FAX 51 01 46

**ELIZ - ETXE**

- ☐ ARGÍ - INDAR INDUSTRIALA
- ☐ HIFI - TELEBISTA - BIDEO
- ☐ RADIO eta TELEBISTEN KONPONKETA
- ☐ TELEBISTARAKO ANTENAK  
 eta ANTENA PARABOLIKOAK JARTZEA

Tfnoa: 51 02 08 - 51 01 81 - LEITZA

**ZABALETA**  
**JANARIDENDA**



Uharte Gotzaia 5  
 Tfnoa: 51 04 28  
**LEITZA**

**ETXEBE**  
**PELUKERIA**

*Pesta Zoriontsuak*  
*Opa Dizkizue*

Elbarren Kalea  
**LEITZA**



Musika Banda. 11,30etan Larbando Futbol zelaian hirugarren mailako futbol partidua. Eguerdiko 2,30etan Aurrerako bazkideen bazkaria. Arratsaldeko 6etan Ezkonduen entzierroa eta zezenak. 7etan Ezkonduen ingurutxoak. Arratsaldeko 8etan eta gaueko 12etan: Dantzaldia ARENAL taldearekin.



*Ana Denda*

Patxi Arrazola 9 - Tfnoa: 51 05 63

**Pesta zoriontsuak opa dizkizue!**

**BELEN OINETAKOAK**

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue!!!*

Elbarren 52 - Tfnoa: 510081 - LEITZA

**DENONTZAT**  
**MERTZERIA**

*Azpiko-arropak, galtzerdiak,  
 pijamak eta josteko tresnak*

**Pesta onak pasa!**

Tfnoa: 510561  
**LEITZA**

**LIZARRAGA**  
**HARATEGIA**

Pesta zoriontsuak  
 opatzen dizkizue

.....  
 Tfnoa: 51 02 83  
**LEITZA**

**SUCESORES**  
 de  
**JOSE GOMEZ**

**TELA - DENDA**

*Pesta zoriontsuak  
 opa dizkizue*



**SAGASTI**

**JATETXEA**

**KAMARERO GOXOAK**

Tolosarako bidean  
 Tfnoa: 610637

*Pesta onak  
 opa dizkizue!*

**XAXARI Ostatua**


*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoien 6 - Tfnoa: 510375 - **LEITZA**


**ZABALETA Zurgindegia**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue!*

Elbarren 90 - Tfnoa 510467 - **LEITZA**



ANTON



ANTON

## URKIOLA HARATEGIA

Bertako txekorren  
espezialitatea

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizue!*

Elbarren 90, Tfnoa: 510 467  
**LEITZA**

## GARTZIARENA ARRAINDEGIA



*Ongi pasa pestetan!*

Tfnoa: 510590 - 510452  
Elbarren 72 - **LEITZA**

## LEITZALARREA AROZTEGIA

**ZURGINDEGI METALIKOA**

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue!*

Tfnoa: 510598 - Elbarren 58 - **LEITZA**

*Bestak ongi pasa  
ttipi-ttapa*

## GAZTETXO

*Goxokiak eta Jolas-lekua*

Elbarren 15 - **LEITZA**

*Pesta onak pasa!*

## Leitzako AURRERA Elkarteko Dantzariak

*Edozein pesta eta ospakizunetarako dantzari bikainak*

Deitu 510187 ☎ra

*Pesta Onak pasa!*

## LEITZA GARAGEA

*Klase guztietako kotxeen  
konponketa eta salerosketa*

Peugeot-Talbot Agentzia

Amazabal 29 - Tfnoa: 510466

*Ongi pasa pestetan!*

Txapa-Pintura-Karrozeriak  
**GURIA (P. Kalderon)**

*Kotxeen konponketa, pintaketa,  
kabinak, lehorketa labean.*

Jai zoriontsuak opa dizkizue

☎ 510255 - Elbarren 58





# LA BIDASOTARRA, S. A.

Geltoki Karrika, 5

Tfnoak. (948) 63 10 08 - 63 02 61 - 63 11 50

Fax (948) 63 02 79

**31780 BERA**

## BIDAI ERREGULARRAK

|                                                       | <b>Ordutegia</b> |
|-------------------------------------------------------|------------------|
| Irun-Iruñea                                           | 07'15            |
| Besta Egunak: Irun-Iruñea                             | 08'00            |
| Lesaka - Donostia                                     | 08'15-14'30      |
| Donostia-Lesaka                                       | 12'30-19'00      |
| Besta Egunak: Lesaka - Donostia (Ez dago zerbitzurik) |                  |

Eraberean, nazioarteko bidaien informazioa

### NORA:

Alemania - Belgica - Frantzia - Holanda - Ingalterra - Italia - Portugal - Suiza

*Lan Zerbitzuak • Eskolakoak*

*• Zerbitzu Diskrezionalak, estatu zein nazioarte mailakoak*

**«GRAN LUJO»  
AUTOBUSAK  
BADITUGU**




48 lagunentzat lekua  
komuna, bideo,  
etabarrekin

**x x x**

## BERA

BIDASOA 60 ☎ 948/631443

**ERAKUSKETABERRIA**



# MOBLEAK METS

BIDASOA KARRIKA 45, ☎ 948 / 630537

LOGELAK, EGONGELAK, MAHAIAK, AULKIAK, ETAB...



## SUKALDEAK



**BAINUAK**

**PARETAN SARTZEKO  
ARMAIRUAK**

## Uda partean, pesta giroan

ANTTON ERKIZIA



### Bazkalondo baterako, ariketa freskagarria:

Pestak izanen ziren orduan ere, argazki hau egin zietenean.

Ikus itzazue, ze nolako elegantziak: ator txuria, trajea, zapatak... Aurpegi moreno morenoak ere bakan batzuek, Benidorm-etik bueltan edo...

Familiako bazkaria duzuenean, bazkalondorako ariketa freskagarria: ezetz ezagutu hor azaltzen direnak, hankak zabal zabalik dagoena eta guzti.

Leitzako Udalak  
utzitako argazkia



### Bi kilotako 'onttoak'

Bueno, egia esateko, ez ziren ontto beltzak, otsoputzak ziren, baina jateko balio zutenak.

"Txoko"ko Lontxo Lasarte eta bere billoba Soniak bilatu zituzten, Gorritzaran alde hortan, eta ontto batek bi kilo pisatzen zituen, eta 1,60 kilo bestek. Alajaina!



### IZARRA bikotea

berriz ere Euskal Herriko txapeldun, Donibane Lohitzuen izandako Kantu Lehiaketan. Maite Susperregi eta Tere Mariñelarena bikotea aurtengoan "Ttipia, maitagarria" kantu berriarekin irabazi dute. Duela bi eta lau urte ere beraiek izan ziren txapeldunak, orduan euskal kantu zaharretan. Eta gehiago ezin izanen dira txapelketa hortara aurkeztu.

Argazkiak: ANTTON

### 550 ttipi-ttapa

550 muxu, Leitza

Festa  
eder batzuk  
izan ditzagun  
eta gero gerokoak



RENAULT

RODRIGUEZ ERASO

TAILERRAK

Elgoien 15 - 510259  
LEITZA



GOIZUETA

## Protekzio Zibileko taldea osatuko da aurki herrian

Bestalde, haurrentzako uda ekitaldiak antolatu dituzte Guraso elkarteak eta Udalak

ESTEBAN AROZENA

Udaletxetik datorren deialdiak uste den erantzuna jasotzen badu, istripu, sute edo edozein motatako larrialdietan lagunduko lukeen Protekzio Zibileko talde bat osatuko da gure herrian, partaide guziak boluntarioak izango direlarik.

Lehen pauso hau emanez gero, Nafar Gobernura joko omen du Udalak behar den tresneriaz ongi hornitua egon dadin aipaturiko taldea, hau da, kamioi bat suhiltzaileentzako, motobonba, anbulantzia, etabar. Animatzen direnak Udaletxean izena eman dezakete



Sute eta larrialdietan lagunduko du Protekzio Zibileko taldeak

ondorengo datu hauekin: Adina, protekzio zibileko ezagupenak, egindako salbamendu kurtsilloak, gildatzeko karnet mota (baladin bada) eta interesgarriak

iruditzen diren datu guztiak.

### Uda ekitaldiak

Guraso elkarteak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak, hainbat ekitaldi an-

tolatu dituzte uztaila eta abuzturako eta sei urtetik gorako haurrei zuzendua.

Astelehen eta ostiral guzietan burutzen ari diren "tailerretaz" gain, asteazkenero eskursio eta ateraldi interesgarriak osatzen dute egitaraua. Adibidez, uztailaren 29an Ondarroa eta Lekeition izan ziren Goizuetako haurrak, abuztuaren 12an eta 26ean Larraun ibaiaren iturburua eta Gipuzkoako kostaldea ezagutuko dituztelarik. Herri inguruko mendi batzuetara egingo diren ateraldiak ere agertzen dira aurtengo udarako prestatu den ekintzen zerrendaren barrenean.

ARESO

## Bizilekuaren arazoa aurreikus daiteke datozen urtetarako

Gazteak ezkontzerakoan kanpora alde egin beharko dute neurriak ez badira hartzen

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Areso herriak 315 biztanle ditu, horietatik 81, 70 urte baino gehiago dituzte. Beraz, herriaren batz besteko adina nahiko altua da. Lanean ari diren gehienak, Sarrio egiten dute eta horiek denak herrian bertan dituzte finkatua beren familiak. Horregatik hainbat jende gazte dago momentu hauetan eta baita ere umeak. Aurtun bertan

bost jaiotza izan ditu eta sei ezkontza. Herriak oso egoera ona dauka momentu hauetan baina urte batzuren barru arazoak ikusten dira. Areson ez dago etxe berririk prest edozein bizitzentzako eta horrek egiten du gure gazteak ezkontzean pentsatzerakoan hurbileko herrietara bizitzera joatea. Ongi litzateke dagokion agintari edota etxegilek arazo honetan kontu hartzea.



70 urtetik gorako larogeitabat pertsona bizi dira Areson JUANA MARI

## Santo Domingo bestak hilaren 31tik Abuztuaren 4a bitarte

Ortziraleko altxaferoarekin emanen zaie hasiera

### Ortzirala 31:

7etan suziriak eta gero txistulariak.

9,30etan Baztan Zopak.

### Larunbata 1:

10etan Dianak.

1etan Kontzertua.

4etan Plater Tiraketa.

**Arratsalde eta gauez**

Dantzaldia Kaixo taldearekin.

### Igandea 2:

10etan Diana.

11,30etan Pilota partiduak.

1etan kontzertua.

6etan Oberena Dantza Taldea.



**Arratsalde eta gauez**  
Dantzaldia Kaixorekin.

### Astelehena 3:

10etan Diana.

11etan Herri Kirolak.

1etan Kontzertua.

2etan Bertso saioa Irungo Ntra. Señora del Junkalek antolatua.

2,30etan Zikiro Jatea.

5etan Herri Kirolak.

11etan Herri Afaria eta dantzaldia Joxe Angelekin.

4etatik aurrera urteroko kantzontzillo eta kulero karrera.

### Asteartea 4:

(Sto Domingo Eguna)

10etan Diana.

11,30etan Meza Nagusia.

1etan Salda Herriko Ostatuan eta gero kontzertua.

5etan Pala partiduak.

**Arratsalde eta gauez**  
dantzaldia Joxe Angelekin.

Bestak ongi bukatzeko txokolatea Herriko Ostatuan.

## ZUBIETA

### JUAINAS

Uda lainotu honetan berriak pilatzen ez badira ere, ematen dira, tarteka, eta aurreko txanda galdu bait genuen, oraingo honetan esan beharra. Denak zakuto berdinean sartzea gustatzen bait zait, elkar lotzea alegia, **mugimentua** genuke oraingoan.

Mugitzen dira **kanpotarrak**, eta Zubietan, etxeak euskara ikastera etorri direnekin bete dira, exajeraziorik gabe! Neka-zal turismoa egitera heldu direnekin lagundurik. Haiek 14 baldin badira, hauek ez ditut zenbatu. Koadrila polita dena den. Hala eta guztiz, San Fer-

minak martxan zirela zenbait Zubietan ikustea hor baina errezagoa zen herrian baino. Baziren Barcelona-ra joanak zirenak ere, Jose Antonio eta Jon Mikel, esaterako, bigarrenak izugarritzko programa bete zuelarik, Iruñan kunplitu behar bait zuen Joaldunak bezala.

Bitartean, **Ostatuko** bigarren txandako **deialdia** irekitzen zen, pare bat proposamen zirelarik, biak kanpotarrenak. Ekonomikoki berdinak zirenez, aukera zaila. Zituzten asmoen arabera egin behar zen, hain zuzen, eta botaziora joz geroztik, Iruñako batzuei eman zitzaion. Egia



esan behar bada, bozketa nahiko xelebrea izan zen, 5 bakarrik bait zeuden Udaletxean. Bost horietatik bi abstenitu ziren, batek proposamen bati eman zion eta beste biek ateri zenari. Gehiengo absolutotzat ezin hartu!

Erabakia bidali eta 10

egun dute kontratuaren baldintzak betetzeko, egun bertan utzi behar zutela aditu omen baitzen ere, murmurioen katedralean. Epea, 24ean bukatzen da. Festetako irekia?

Eta joan etorriak ugal-tzearekin denak aldegitia bihur ez dadin, herritarren finkapena lortze asmoz, European **'Leader' Plan-gintzan** Zubietako posibilitateak estudiantzeko laguntza eskatu da, ea norbaitetik bidea ikusten den, hain zuzen.

Momentuz, eta udako giroa delarik, festak! Programa osatu dute eta hurrengo **ttipi-ttapan** agertuko da. Ongi pasa!



BAZTAN

## Alli-k, EA eta HBkoekin batera parte hartu zuen Amaiurko bataila gogoratzen zuen ekitaldian

JOSEBA

Uztailaren 18an, Euskaria Elkartek antolatutako, 1522an Nafarroako Independentziaren galtzea gogoratuz 470garren urteurrena ospatu zen Amaiurren. Gonbitea hainbat politikoko eta agintariri luzatu zieten eta horri erantzunez EA, HB eta inork espero ez zuen Juan Cruz Alli, Nafarroako Lehendakaria bertaratu zen. Allik adierazi zuenez, "egun hau Nafartar guzientzat garrantzia haundikoa da". UPNk bere aldetik, esplikazioak eskatu dizkio Alliri afera honengatik. Aipatzekoa da, UBko inor ez zela bertara agertu.

Amaiurko Alkatea den Koldo Goienetxe izan zen ekitaldia zabaldu zuena eta bere segidan Baztango Alkatea den Patxiku Oiarzabal mintzatu zen.

Arizkungo dantzarien aitaldiaren ondotik Joxe Urrotz, Euskariako partaide mintzatu zen.

Ekitaldiari bukaera emateko Nafarroako himnoa jo zuten gaiteroek eta



Baztan eta Nafarroako agintari eta politikoko ugari bildu ziren Amaiurren



Juan Cruz Alli, HB eta EAKo alkate eta parlamentariarekin batera egon zen Amaiurren.

Argazkiak: JOXE

segidan, kaxkotik jautsita koan, Herri Bazkaria izan zen Amaiurren.

### Omenaldia

#### Domingo Etxandiri

Abuztuaren 1ean eta Baztango Udalaren iniziatibaz, afari-omenaldia eskeiniko zaio Domingo Etxandiri kaikugile Erratzuarrari bere bizitza osan zehar egindako lanarengatik.

### Karretera bazterrak

Ikatzateko Bentatik Errtazu bitarte Tour-a zela eta moldatu bazuten ere, modu txarrean utziak dituzte bazterrak. Zirrika sartzen bazaizu, lan ederra izanen duzu ateratzeko.

### ttipi-flash

❑ **Xorroxin** Irratiaren alde eta Ineztureak sortutako kalteak berritzeko bi Zozketa antolatu dira. Alde batetik 2 lagunendako Parisera bidaia eta bertzetik, TB bat izanen dira zozketen sariak.

Hemendik egun gutira herri guzietan egonen dira salgai txartelak, lehenak 1.000 pezetatan eta 2.ak 500etan.

❑ **Abuztuaren 11an** jokatu da Elizondoko Igerilekuan, Nafarroako Igeriketa Txapelketarako baliagarria izanen den Eskualdeko Kanporaketa. Kanporaketan, Baztan, Bortzirriak, Leitzaldea eta Malerrekako maila ezberdinetako igerilariak arituko dira, eta hoberenak, aurtengoan Beran ospatuko den Finalera pasatzeko txartela eskuratuko dute.

❑ **Eskulangintza** Ikastaroa antolatu da abuzturako Arizkunenea Kultur Etxean emateko. Ikastaro hau, 8 eta 12 urte arteko haurrentzat prestatua dago. Informazio gehiago 581279 telefonoan.

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**Aprobetxatu aukera!**  
**MERKEALDITAN GAUDE**



ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



## Baztandarren Biltzarra

Baztandarren Biltzarra egunera bertze urtetan baino kanpotar gutiago agertu bazen ere, jende dexente izan zen beroari desafiatuz Elizondoko karriketan bildu zena. Karrozen desfilean, Arizkungoa izan zen lehen saria eskuratu zuena 'Errota Zaharra' rekin. Bigarrena Anizkoak 'Elizekoak' eta hirugarrena Amaiurkoak. Halere, 7 herririk ez zuten karrozarik ekarri (Azpilkueta, Elbetea, Lekaroz, Almandoz, Irurita, Gartzain eta Arraiotzek). Ageri denez, belarren aitzakiari, "karroza prestatzearen lana azken egunerako uztea" gehitu egin behar zaio.

Argazkiak: MENA



Arizkungo karroza izan zen lehen saria eskuratu zuena, "Errota Zaharra" rekin.



Anizko karrozak, "Elizekoak", bigarren saria



Amaiurkoek 1522an gertatutakoa ekarri ziguten gogora

### OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI

### ARROPA DENDA



### CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia



### JATETXEA

Tfnoa.: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza**



### ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO  
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

## Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak  
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikuluak

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

### IPARLA KIROLAK

• Kirolak orokorki  
• Ekipamenduak eta trofeoak  
Santiago 51 - Tfa: 58 05 85  
**ELIZONDO**

### BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA  
SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373



## ZUGARRAMURDI

### Bestetan zonbait ekitaldi berezi izanen dira

MARGARI eta KORO

Gazteak bildu ziren bestak antolatuta uzteko asmoan. Iazko programan izandako gauza guztien gainera aurten hauxe gehiago izanen dugu:

Kantaldi bat "Jojo eta Ramuntxorekin, zikiro jateko egunean "Kukubiltxo taldea" plaza animatzen eta azkeneko urtetan egitetik utzia zen ekitaldia: Plater

tiraketa.

#### Behi batek hiru aratze

Gauza bitxi bat gertatu zen lehengo aldian: Jesus Beolaren behi batek hiru aratze izan zituen, bo ohots eta urrixa bat. Zoritzarrez, bi ohotsak sortu ziren momentuan hil egin ziren, urrixa berriz ongi segitzen du eta iduri du aintzinat aterako dela.




Zugarramurdiko eliza

👉👉👉 SAN ESTEBAN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU 👉👉👉

## JAURENA

Sukalde mobleak - elektrogailuak

Rikardo Baroja 12, Tfnoa: 63 07 60 - BERA



SARA

# Kontrabandisten Laisterketa Agorrilaren 23an iraganen da

1961an hasi zen kurritzen eta aurtengoan XXX. edizioa burutuko da

OLHAIN ELKARTEA

Heldu den Agorrilaren 23an iragan beharra da aurtengoan XXX. edizioa betetzen duen Kontrabandisten Laisterketa. Sarako plazatik abiatuta "Zazpi Fagoetaraino" eta bide bera hartuz bururatzen da erre-botean. Zortzi bat kilometra dituzte gutti gora behera kurritzen laisterkariak. Mugaz bi aldeetan diren 18 herrietarik jiten dira: herri bakoitzak bi ordezkari igortzen ditu. Lehen laisterketa 1961ean egin zen "Syndicat d'Initiative" elkarteak antolaturik. Garai hartan irabazle atera zen Louis Belhart Olhetarra.



Mugaz bi aldetako 18 herritako laisterkalariak biltzen dira Saran

Ainitz parte hartzailek biziki emaitza onak ardie-tsi dituzte eta ez behin bakarrik: Ricardo Toro irundarra 5 aldiz, Gabi Etchart ezpeletarra 4 aldiz, Mitxelena (Barraka) le-sakarra 3 aldiz edo Koxe

Oronoz saratarra 2 aldiz, eta iaz Michel Larzabal saratarra lehen aldikotz. Laisterkaldia arratsaldeko bortzetan abiatuko da eta denboraberean iraganen da egun guzian Gasna eta Es-kulangintza Azoka.

## Pilota solas

Uztailaren 13an Ain-hoan iragan da Euskal He-rriko junior mailako finala eta hor Christophe Mariluz eta Albert Etcheverryk osaturiko bikoteak galdu zuen esku huska Uztaritze-ren aurka: 30-31. Saratar bikotea joan den urtean xapeldun atera zen Cadet mailan.

**Luzean**, junior mailan, Sarako plaza berrian Uz-tailaren 14ean atera ziren garaile Atarratzeren aurka Azkaineren kondu ari zi-ren Igos, Maskotena anaiak, Daguerre eta Cristophe Mariluz: 13-6ko emaitza lortu zuten.

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea  
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



\* Jatetxea haize egokituarekin hornitua





**VASCONGADA DE SEGUROS**



Compañía del Grupo Asegurador **La Baloise**

Eztegara Pasealekua 8  
**BERA** Tfnoa: 631169

## **TXOKOA OSTATUA**

**Pintxoak eta bokadilloak**

*Besta on batzuk opa dizkizuegu*


Iparraldea karrika, Tfnoa: 630 286 - **BERA**



\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko  
antenak ere paratzen ditugu

**Itzea 4, behea – BERA Tfnoa: 63 10 91**



**San Estebanetan  
Elkartasunezko  
jai giroan!**

**Euskadiko  
Kutxa**



**CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA**

## EZKONTZAK

**Jesus M<sup>a</sup> Goienetxe Etxebehere** eta **M<sup>a</sup> Aranzazu Goikoetxandia Urdanoz**, Amaiur eta Iruñakoa, uztailaren 4ean.

**Juan Jose Inarrea Rekarte** eta **Dolores Mitxelena Iparrea**, Erratzu eta Iruritakoa, uztailaren 11an.

**Francisco Arotzarena Marin** eta **Patricia Haydee Musiris y Chafó**, Elizondo eta Limakoa, uztailaren 17an.

**Alejandro Martin Blasco** eta **Antonia Lopez Ucles**, Berriozarrekak, uztailaren 17an.

**Simon Apezetxea Perurena** eta **M<sup>e</sup> Izaskun Bakero Eskudero**, Goizuetakoa, uztailaren 18an.

**Jose Benito Rguez. Peña** eta **M<sup>a</sup> Junkal Fdez. Alvarez**, Orense eta Lesakakoa, ekainaren 20ean.

**Gregorio Ugalde Mitxelena** eta **Cristina Trabadelo Larxe**, Lesaka eta Donostiakoa, ekainaren 27an.

**Alfredo Perez Olaetxea** eta **M<sup>a</sup> Isabel Loperena Pikabea**, Lesaka eta Oiartzungoa, uztailaren 4ean.

**Joaquina Pellejero Rezola** eta **Manuel Alustiza Otermin**, Are-sokoak, Uztailaren 18an.

## JAIO TZAK

**Gorka Portu Garcia**, Lesakan, ekainaren 1ean.

**Cristina Etxebeste Azkarate**, Lesakan, uztailaren 3an.

**Oihan Iparragirre Irigoien**, Etxalarren ekainaren 3an.

**Olaia Matxikote Sein**, Igantzín, Uztailaren 21ean.

**Gaizka Bendoiro Urroz**, Eratsunen, apirilaren 6an.

## HERIOTZAK

**Victoriano Barrenetxe Etxenike**, Elizondon, uztailaren 10ean, 77 urte.

**Bixente Lanz Esposito**, Lesakan, ekainaren 30ean, 88 urte.

**Juan Elizalde Mutuberria**, Eratsunen, ekainaren 26an, 81 urte.

\*\*\* SAN ESTEBAN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU \*\*\*



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

GOZOTEGI-JAIONE



*Besta zoriontsuak  
opa dizkizuegu*

Itzea 3, 630786 - BERA



ARROPA ETA OPARI DENDA

**San Esteban  
zoriontsuak opa  
dizkizuegu**

Legia 11  
63 06 64 BERA




## Hamid: 'Joxemari merke ta ona' ren kontura, hameka bazilada aguantatu beharra izaten dugu

Hamid, Marokkotik etorritako migraria dugu. Zortzi urte daramazki Euskal Herrian, eta azken urteotan Leitzan dago erroldatua.

Berak kontatu digunez, alderdi honetan bere gisa dabilzan gehienak Gipuzkoaldean bizi dira urtean zehar. Udan aldiz, herrietako bestetan, nork daki zenbat gauza saltzen ikus daitezken

«Joxemari» ak dira. Gehienak ezkonduak izan arren, emaztea eta seme-alabak beren sorterrietan dituzte, gurasoen etxeetan. Bisitan joateko, ordea, oztopo larriak dituzte gaur egun. Izan ere, erresidentzia baimena eskuratzea ez da kontu erraza, eta beraiek diotenez egoerak txarragorago jo dezake, eta hobe da joan etorrietan ez arriskatzea.



**h**orixe baita, hain zuzen, egunero kezkatarik bat Hamid-en modura Euskal Herrian bizi diren migrariantzat: 'Leyde Extranjería' ren ondorioz, eskuratzea gero eta zailagoa den erresidentzia baimena lortzea, alegia. «Honez gero urtea pasa da ni bezala dauden hainbat eta

hainbat paperak tramitatzen hasi ginela, eta oraindik ere ez dugu inolako erantzunik hartu Espainiako administrazioetik» dio Hamid-ek kezkatu aurpegiarekin. Ageri denez, bere gisa bertze erresumetatik (Marokko, Hego Ameriketatik, Portugal...) etorritako jende ugari bizi da estatu Espainiarrean egoera


berdintsuan. «Geure kontura lanean ari garenoi, adibidez, gero eta papera gehiago eskatzen digute erresidentzia baimena tramitatzeke, Lizentzia Fisikala dela, Errenta Deklarazioa dela.... Paperak berritzeke, dena dela, behar beharrezkoa dugu autonomoetan bederen kotizatzen dugula erakustea»

dio segidan Hamidek.

Bizitzeko haina ateratzea, urtetik urtera zaila goa dela baieztatzen ez du inolako zalantzarik agertzen gure solaskideak. «Arront zaila da. Egun batzutan gehixeago, bertzetan gutixeago... baina beti juxtu-juxtu. Gainera, hemen estatuko bertze tokitan baino garestiago da bizitza. Hilabetean hoge mila duro baino gutiagorekin, jan, jantzi, etxea eta aseguroa ordaindu, kotxea, sakelerako... Aberia eta gaixotasunen bat hartuz gero, kakalarri ederra! Izugarri nabaritzen da azken urteotan, jendeak ez duela dirua hain erraz gastatzen. Gaur egun 5 duroak ere regateatzen dituz jendeak, ez lehen bezala».

Hemengo jendearekin nola moldatzen diren galdetzerakoan, zera dio Hamidek: «Hasieran dena zaila goa da. Hizkuntza ikasi behar, klase guztikoak bromak aguantatu, jendearen konfidantza irabazi behar... Euskaldunak normalki barnerakoi xamarrak bazarete ere, konfidantza irabazitakoan, ongi onartzen gaituzue gehienetan. Halere, hemengo bertze bat bezala tratatuak izatea nahiko genuke. Kurioa da bainan izugarri aldatzen da jendearen portaera bestan da goenetik lan-egun normala».

Saltzen duten merkantzia ere, urtetik urtera, modaren arabera edo, zertxo-



Lepotik zintzilik daramazkiten kajak lurrean utzi eta atsedena hartzeko modua ere bilatu behar


bait aldatu egiten omen dute. Nolanahi, lepotik zintzilik daramazkiten kaketan edozein gauza aurki daiteke. «Aurten, lore argidunak daude furi-furian» zehazten digu Hamidek.

Etorkizuna, berriz, ez dago batere argi. Garai batean hemendik Ameriketara joan beharrean egon ziren euskaldunen gisara, diru zerbait irabazi eta berriro beren herrietara itzultzea da gure protagonisten helburua. «Sorterri- itzultzea arront zaila ikusten dut nik behintzat» dio Hamidek. «Gaur egun izugarri zaila da hemen diru zerbait irabaztea gero horrekin herrira itzuli eta han negozioren bat jartzeko. Ni, adibidez, Casa blanca-koa naiz eta han ere, hemen bezala, bizia hirietan herrietan baino

garestiagoa da. Ezberdintasun bakarra dago. Han ez dago hemen hainako kontsumismo edo biziorik. Hemen lagunekin karrikan ibiltzean, diru aunitz gas-

tatzen da. Han ez. Te edo tabakoa, eta kitto!».

Testua: J.M. IRIGOIEN  
Argazkiak: M.K. TOLOSA



"Ettxekoetatik urrun, paperak lortzeko mila zailtasunekin eta gainera, Joxemariaren bazilada aguantatu behar. Gogorra da, gero!"



## «Miguel Indurain» Zikloturista Martxa antolatu du Club Ciclista Beratarrak

*Abuztuaren 16an egingen da eta Atarrabiako txirrindularia egonen da arratseko afarian*

Datorren abuztuaren 16an burutuko da lehen aldiz Club Ciclista Beratarrak antolatzen duen «Miguel Indurain Nazioarteko Zikloturista Ibilaldia».

Martxa honek bi ibilbide izanen ditu, bata 183 kilometrotakoa eta bertzea 110 kilometrotakoa, gehien bat Nafarroan zehar, baina baita ere Iparraldean barrena. Honegatik, antolatzaileak karneta beharrezkoa izanen dela gogoratzen dute.

Froga honetan parte hartu nahiez gero, korreoz edo pertsonalki eman daiteke izena Club Ciclista Beratarra (Berako 26. postakutxatila). Epea abuztuaren 9an bukatuko da edo ibilaldiaren egun berean, hau hasi baino 15 minutu lehendik.

Izenemateak 2.000 pezetako du ibilbide luzerako eta 1.000 laburrerako, honela oroigarriak, «abituallamientoa», sariak eta kirol materialeak hartzeko eskubidea lortuz. Martxan zehar ere, zenbait kontrol egonen dira, batzuk seiloa emateko eta bertzeak abituallamientoa emateko.

Arratsean egingen den afarira Miguel Indurain, Atarrabiako txirrindulari bera agertuko da eta bertan plaka oroigarri bat emanen zaio.



Plaka bat emanen zaio Miguel Indurain-i froga ondorengo afarian

## XXX. Kontrabandistean laisterketa Agorrilaren 23an jokatu da Saran

Agorrilaren 23an jokatu da Saran aurtien 30. edizioa betetzen duen Kontrabandisten Krossa. Mugaz bi aldeetako 18 herrietako bina ordezkariak parte hartzen dute froga honetan. Lehen irabazlea, 1961ean Louis Belhart Olhetarra izan zen eta azkena, iazkoan, Michel Larzabal Saratarra. Laisterkaldia Sarako plazatik «Zazpi Fagoetaraino» eta bide bera hartuz bururatzen da errebotean.



Bertzalde antolatzaileek, dei egin dute hasieratik gaur arte irabazle atera diren kirolariei bere

burua ezagutaraztea. Hortarako, deitu 59542014 zenbakira lehen bai lehen.

## PING-PONG

### Mahaiko Tenisaren Udako III. Campusa Elizondon egingen da Abuztuaren 17tik 23a bitarte

Aurtengo Abuztuan, 17 eta 23 bitartean, Elizondon egin behar da Mahaiko Tenisaren Udako III. Campusa, astelehen goizez hasi eta igande arratsaldez bukatuz.

Eskualde honetatik 15 partehartzaile apuntatu dira, bereziki 9 eta 14 urte tartean dauden neska-mutikoei zuzendutako Campus honetan.

Partehartzaileen artean bi talde egingen dira, batzuk irakaskuntzako eta bertzeak hobakuntzarako.

Erabiliko diren instalazioak Elizondoko polikiroldegia (kirolerako), etxe eskola (aloramendua) eta Ikastetxe Publikoko jangela (otorduak) izanen dira.

Egun gehienetan egitarau zehatz bat jarraituko da baina ortzegun arratsaldean libreza izanen da, eta kultur ekintzaren bat antola daiteke. Baztango haranaren zehar. Honekin espero da haurrek ikastea, ongi pasatzea eta, gainera, bertze lekuetako haurrekin bizitzeko ikastea.

## HERRI KIROLAK

### 600 kilotako sokatiraren bigarren erdifinala Etxalarren jokatu da Abuztuaren 15ean



Lehen finalerdian **Elizondon** burutu zen Baztandarren Biltzarren bezperan eta abuztuaren 15ean **Etxalarren** egingen da bestak direla probetuz. Finala, **Iruñeako** Labrit pilotalekuan izanen da abuztuaren 29an. Eskualdeko taldeak paper ona egingen dute, dudik gabe.



### Txirrindulari frogaz beteriko hilabetea izanen dugu Abuztua *Beran, Leitza eta Sunbilla nagusiki*

Txirrindulari frogak ugari izanen da abuztuan. Beran hiru frogak izanen ditugu: lehen eskoletako haurrei zuzendua eta Gure Txokoak antolatua. Hilaren 5ean, C.C. Beratarrak antolatzen du kadeteen laisterketa eta 29an berriz eskolakoak arituko dira (Gure Txokoa).

Sunbilla abuztuaren

8an arituko dira, herriko bestetan, eskolakoak, Erreka elkarteak antolatutako frogan.

Leitza berriz, bi laisterkaldi izanen dira egun berean (abuztuaren 9an) Guratz Mendi elkarteak antolatuta: bata eskolakoentzat eta bertze kadete mailako mutikoenentzat.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Jexus Mari Almandoz** Lesakako pilotaria.

17 urtekin Espainiako txapelkun geratu da jubenil mailan eskuz banaka. Burgosen jokatu-tako finalean, Agirre bizkaitarra gailendu zuen. Zorionak eta segi horrela.



**Igerileku** estalirik eskualdean ez egotea.

Nafarroako igeriketa txapelketak datozenean, zerua begira egon behar izaten dute antolatzaileak, eskualdean ez bait dago piszina estalirik. Eguraldiak lagundu dezala.



## Etxebizitzak

• **Elizondon**, Santiago karrikan pisua salgai. 3 logela, jangela, sukaldea, kalefakzioa eta ganbarakin. ☎ 453213 (M<sup>a</sup> Jesus). Arratsetan deitu.

• **Baserria** salgai, Arantzan 14.000 m<sup>2</sup>ko terenoarekin (belaia eta oihan pixka bat). Ura eta argiarekin, bidea ere egina du. ☎ (943) 62 02 97.

• **Baserri** edo borda bat alokatuko genuke eskualdean. ☎ 450769.

• **3 solairuko** (ganbara, pisua eta sotoa) etxea salgai Beran. 3 gela, sala, sukalde handia, garajea, terraza eta lur eremu pixko bat badu. ☎ 630931 (Otorduetan).

• **Lesakan** pisua eta 200m<sup>2</sup>ko bajera salgai. Industria lekua. Nahi izanez. ☎ 637872.

## Lana

• **Ingleseko** klase partikularrak emango nituzke, maila guztietan. ☎ 631136 (Elene).

• **Herriko** festetan osatuetan lan egiteko prest

nago. Interesatuak dei dezala 450743 ☎ra.

• **Herriko** bestetan osatuetan lan egiteko nuke. ☎ 637052 (eguerditan deitu). Lesaka.

• **Neska** euskalduna behar dut Irunen Irailetik aurrera haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urte osorako lana. Deitu (943) 624298 telefono zenbakira.

## Salerosketak

• **Narbarten**, belar elebadora elektrikoa, tubo eta guzi salgai. ☎ 592134 (eguerditan).

• **Ahari** bat, astoa eta oilagor zakurra salgai. Deitu 634093 ☎.

• **Haurrendako** ia ia berria den seaska salgai. ☎ 45 02 42.

• **Kawasaki** kx 125 89koa salgai. Egoera onean dago. ☎ 450163 (Pikabea).

• **Honda** 125 MTX trail motoa, bi urtekoa seguruarekin, 175.000 pezetetan salgai. Mikel (Arantza). ☎ 634046.

• **Esne** tankea salgai, 420 litrotakoa, arront gutxi erabilia. ☎ 450951 (gauean deitu).

• **Hozkailua** edo frigoa nahi dugu udarako. Gero itzuliko genuke. Malerrekako Euskaltegia. ☎ 451555.

## Denetarik

• **Beratik** Mendaure-rako bidean urrezko pul-tsera galdu da. Pili izena eta jaiotza eguna jartzen du. Norbaitek arrautu badu deitu faborez 630623 ☎.

• **EBGko** hurrei kla-seak emango nizkieke Leitzan. ☎ 510177 (Lorea).

• **Lesakan** toki onean denda traspasatzen da. Deitu 637401 ☎ra.

• **Leitzan** urrezko pul-tsera galdu dut Leitzan. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 510059 ☎ra.

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolari-entzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. ☎ 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10etatik 1etara eta 5etatik 8etara 637410 ☎ra.

## Harremanak

• **Leitzako** Juanita Sa-gastibeltzari: Urtebetetze egunean bere senar eta seme-alaben partetik.

• **Urrozko** M<sup>a</sup> Jose Zo-zaiari bere 16. urtebetetzean, zorionak eta muxu haundi bat. F. J.

• **Leitzako** Lidiari, laister ikusiko gera. Muxu haundi bat. Iban.

• **Aresoko** Igor, Unai eta Naiarari zorionak, uztailaren 26, 27 eta 28an. Egundon bat pasa. Juana M<sup>a</sup>.

• **Zubietako** Manuelentzat. Zorionak zure urtebetetze egunean zure emazte, seme-alaba eta zure billoba Urkoren partez. (J. Loiarte).

• **Saldiasko** Ainhoa E.ri. Zure ezpain gorri horiek txoratzen naute eta zure begiak erotzen. Baina bi hitzetan: Maite zaitut. X.en partez.

• **Oizko** Iker-entzat 2. urtebetetzean zorionak. Aitona Fermin, bere aita-txo-amatxo eta lehengusuen partez muxu bero bat. Aupa potoko maitea. Jokin eta Olaia.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK \_\_\_\_\_

HELBIDEA \_\_\_\_\_

HERRIA \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



Argazkia: JOXE

Urteetan,  
egunero,

LANA eta  
FESTAN ere  
ZUEKIN  
GAITUZUE

lagun,  
lagunartean.



**NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**

**BERAn**

- Foru Plaza 3
- Altzate 33

**LEITZAn**

- Huarte Gotzaia 19

**SUNBILLAn**

- Karrika Nagusia z/g





Berako Udalak besta onak opa dizkizue  
Beratar eta bisitari guziei



VOLKSWAGEN - AUDI  
ZERBITZU OFIZIALA



# Sampi Aragón



- ✓ *Garbikailu Automatikoa*
- ✓ *Turismo eta furgonetentzako programa ezberdinak*
- ✓ *Tapizeria eta barnekaldeen garbiketa*

**ETORRI ETA PROBA EZAZU!**

Tfnoa: 45 03 54 DONEZTEBE - Tfnoa: 58 05 93 ELIZONDO